

2018ko apirila

Apirilaren 11n eta 12an eskualdeko elikadura strategiaren baitan dauden parte-hartze saioak burutu genituen Lea-Artibaiko Berrikuntza Gunean. Saio hauetan sektore desberdinak izan ziren protagonista: ekoizleak (nekazariak, abeltzainak, transformatzaileak), merkatariak eta ostalariak.

Saioaren hasieran Leartibai Garapen Agentziako zuzendariak egoeraren eta lan-ildoen aurkezpena egin zuen. Jarraian parte-hartzaile ezberdinen aurkezpen erronda egin zen, beraien artean ezagutu eta sinergiak sortzeko helburuarekin. Aurkezpenarekin amaitzeko, *Hiritik At*

dinamizazio enpresak elikadura strategiaren prozesua nolakoa izango den azaldu zuen: zein fasetan gauden, aurrera begira zein bilera eta ekintza izango ditugun...



Aurkezpena amaitzean, elikadura sektorearen egoeraren diagnostikoa egin zen. Horretarako, eskema baten bidez, indargune/aukera eta ahulezi/mehatxuak identifikatu zituzten. Horrez gain, identifikatutako faktore hauen analisia sakonagoa izan zedin, esparru desberdinetan banatu ziren: ekoizpena eta transformazioa, komertzializazioa, jendartea eta kontsumo ohiturak eta lurraldea.

Foroko partaideak, talde txikietan banaturik, oso aktiboak izan ziren ariketa honetan, egunerokotasunean eta batez ere jarduera aurrera eramaterakoan identifikatuta dituzten zailtasunez edo bitxikeriez hitz egin zutelarik. Parte-hartzaileetako batzuk faktore asko partekatzen dituztela konturatu ziren, zailtasun berdinen aurka lan egiten dutela eta aspektu askoren inguruan ikuspuntu bera dutela.

Azkenik, eragileek beste ariketa bat burutu zuten: eskualdean elikadurarekin erlazionatuta egin diren eta arrakastarik lortu ez duten proiektuen balorazioa. Proiektuak azaldu ondoren, potentzialitatearen eta interesaren arabera lehenetsi ziren, etorkizuneko ekintzak zehazterakoan kontuan hartzeko. Horrez gain, porrotaren zergatia identifikatzea ere

garrantzitsua zela adostu zen, eta horretan jardun zuten parte-hartzaileek.

Aurrera begira egingo diren saioak azalduz eta parte-hartzea eskertuz amaitu zen saioa.

Maiatzaren 3an praktika-onen foroa ospatuko da. Saio hau publikoari zabalik egongo da, beraz, interesa izanez gero jarri gurekin kontaktuan 94 616 90 88 telefonoan edo idatzi jxurruka@leartibai.com helbidera.